HERNANIKO UDALAREN AUTOBUSA MIKROBUSA UGARTE SLU OPERADOREAK EMANDAKO HERNANIKO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAREN HITZARMENAREN LUZAPENERAKO ADENDA

Donostian, sinadura digitalaren egunean

BILDUAK

Alde batetik, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra jauna, alkate moduan, Hernaniko Udalaren izenean eta bere ordezkari gisa.

Ondorio horietarako, Tokiko Gobernu-Batzarrak 2021eko martxoaren 4an hartutako erabakiaren bidez bereziki ahaldunduta esku hartu du.

Bestetik, Imanol Ugarte Garrido, Autobusa Mikrobus Ugarte SLU operadorearen izenean eta hura ordezkatuz

Eta, beste aldetik, Miguel Ángel Paez Escamendi, lehendakari moduan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren izenean eta bere ordezkari gisa.

2024ko abenduaren 26ko datan Batzar Orokorrak hartutako erabaki bati esker ondorio hauetarako bereziki gaitua izan ondoren hartzen du parte.

Alderdiek, beren karguen indarrez, eta beroriek emandako ahalmenak eta eskumenak erabiliz, luzapen hau sinatzeko gaitasuna eta legitimazioa aitortzen diote elkarri, eta horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

I. 2021eko otsailaren 5ean, Hernaniko Udalaren Autobusa Mikrobusa Ugarte SLU operadoreak emandako Hernaniko bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzuan tarifen integrazioko sistemaren hitzarmena sinatu zuten.

II. Aipaturiko hitzarmenaren Hamargarren klausulak honako hau dio:

«Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urteko iraupena izango du, beste lau urtez luzatu ahal izango da, aldeek idatziz adostu ondoren.

Hitzarmenaren iraupena adostu arren, edozein alderdik indargabetu ahal izango du, baina beste alderdiari idatziz jakinarazi beharko dio, hitzarmena amaitzeko aurreikusitako eguna baino bi hilabete lehenago».

ESKU98cfda34-bfc2-4eb3-93bd-f9f31563377fe

III. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) 2 artikuluak, luzapenari dagokionez, honako hau xedatzen du: *«Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea».*

IV. Hasierako lau urteak igaro ondoren, alderdiek hitzarmenaren xedeari jarraipena eman nahi diote, eta egokitzat jotzen dute luzatzea.

Aurrekoaren ondorioz, alderdiek hitzarmen hori luzatzea erabaki dute eta honako klausularen arabera gauzatuko da:

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN LUZAPENA.

2021eko otsailaren 5ean, Hernaniko Udalak, Autobusa Mikrobus Ugarte SLU operadoreak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Hernaniko Udalaren Autobusa Mikrobusa Ugarte SLU operadoreak emandako hernaniko bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzuan tarifen integrazioko sistemaren hitzarmena sinatu zuten lau urteko hasierako iraupenarekin.

Haren hamargarren klausulan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) 2 artikuluan xedatutako agintaldian jasotako aurreikuspenaren babesean, lau urte gehiagoz luzatuko da, hau da, 2029ko otsailak 5 arte.

Hala erabaki eta adostu dute, eta, horretarako, eta behar bezala jasota gera dadin, hitzarmenaren luzapen hau sinatu dute digitalki.

HERNANIKO ALKATEA

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAKO LEHENDAKAIA

MIGUEL ANGEL PAEZ ESCAMENDI - 15245674D

Firmado digitalmente por MIGUEL ANGEL PAEZ ESCAMENDI - 15245674D
Fecha: 2025.02.11 11:33:39 +01'00'

AUTOBUSA MIKROBUS UGARTE SLU